Mondragon Unibertsitatea

Profesionalentzako Prestakuntza

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa

aditu titulua (7. edizioa)

2018-2019 ikasturtea

Ignazio Aiestaran | Eduardo Apodaka | Xabier Gantzarain | Mari Luz Esteban | Pello Jauregi | Josune Zabala | Izibene Oñederra

Belaunez belaun, sortzailez sortzaile, beti aurrera begira, euskal kultura

Esperientziak irakatsi digu delako transmisio horrek norabide asko hartzen dituela. Aurrez aurre bizi izandakoa ikasgelan, solasgai bihurtzen da mintegietan, elikagai ikasleen proiektuetan.

XXI. mendeko galdegaiei begira, euskal kulturgintzaren transmisioa ipar duen formazio-eskaintza eman nahi dugu. Gure herriarentzat funtsezkoa den dimentsio honetarako jakintza-tresnak sortzeko gune izan nahi dugu eta ekinbideak hedatzen joateko bozgorailu.

Transmisioak batzen ditu bere baitan, gure ustez, orain arte izandakoa, gaur egun garen hori eta etorkizunean izan gaitezkeena. Kulturgintzaren sozializazioa, azken finean. Ez gaude atzera begira, aurrera begira baizik. Horixe da guretzat euskal kultura transmititzea: betidanik datorkigun izateko gogo horri eustea, sortzen eta birsortzen, ereiten jarraitzea.

Gure kulturgintza garaikidearen protagonistek –aditu eta aritu– bildutako esperientziaren transmisioa bideratzen hasita gaude HUHEZIn azken urteotan. Orain arte izandako sei edizioen berri gure webean aurkituko duzu: **www.mondragon.edu/eu/ekt**

Iratxe Retolaza | Joseba Sarrionandia | Iban Urizar-Amorantea | Xabier Amuriza | Miren Amuriza | Meltxor Artetxe | Miren Artetxe

Ibai Iztueta

Iñaki Zabaleta Gorrotxategi

Mikel Ayerbe

Pello Eltzaburu

Xabi Strubell

Tony Strubell

Marc Biosca

Helburuak

Gure kulturgintza biziberritzeko kezkari erantzunez, 2007-08 ikasturtean EKTri hasiera eman genionetik, hainbat helbururi erantzun nahi die egitasmoak:

- Euskal kulturgintzari buruzko ezagutza barreiatua korpus baten biltzea, eta bilketa hau formazio dialogiko baten bidez transmititzea. Horren baitan, kulturgintzan azken hamarkadetan sortzaileek izandako kezka, ikuspegi, zailtasun, apustu eta esperientziak belaunaldi berri bati ezagutaraztea.
- Gure kulturgintzak dituen ortzimugen eta desafioen aurrean formazio multifokal eta praktikoa eskaintzea, eragileei jakintza-tresnak emanez.
- Kulturgintzaren transmisioan izandako estrategia eta esperientzia beste alorretakoen eskura jartzea.
- Aurretik esandako guztiak (korpus baten sorkuntza, desafioen gogoeta multifokala, esperientzien transmisioa) bi polo harremanetan jarriz egitea: batetik aritu eta adituen multzoa, eta bestetik gai honetan jantzi nahi duten gaurko eta etorkizuneko eragileen multzoa.

Aurreko sei edizioetako emaitzak gogoan dauzkagula, EKTren zazpigarren edizioari honako ezaugarri bereziok jarri nahi izan dizkiogu:

Ezagutza bildu

Zazpigarren edizioan, berebiziko garrantzia eman nahi diegu ondoko gaiei:

- Aurreko edizioetan berariaz landu genituen hainbat gaietan sakontzen jarraituko dugu: adibidez, familiaren baitan bertan bideratzen den kultur transmisioari erreparatu nahi diogu oraingoan ere. Bestetik, euskal kulturaren transmisio bideetan sakontzen jarraituko dugu fokua berariaz hezkuntzan jarrita.
- Halaber, beste gai batzuk ere aztertuko ditugu: gizarte tradizionala gaurtik nola irakurtzen den, kulturgintzako egiturei eusten dieten harremanei, euskaraldia ekimenari e.a. Bestetik, bi eremuetara hurbilduko gara nazio kulturalaren eraikuntzan kulturgintzak duen rolak arakatzeko: Arabara eta ipar euskal herrira.
- Horrez gain, ate ireki moduko jardunaldi bat egingo dugu graduondoaren baitan Katalunyaren gainean. Aztertuko duguna izango da zein paper jokatu(ko) duen kultur sorkuntzak procés delakoan. Bukatzeko, Jose Anton Artze, aspaldiko laguna, hartuko dugu gogoan jardunaldi horretan.
- EKTren 7. edizio honetan, aurreko edizioan bezalaxe, hori guztia modu intentsiboagoan egin nahi dugu. Hilean behin elkartuko gara asteburu batean. Larunbat-igandeetako saiotik saiora hartu-emanetan jarraitzeko eta gaitegian sakontzeko lan batzuk adostuko ditugu. Edukiak eta taldeko bizipenak modu erakargarrian uztartzeko ahalegina egingo dugu bertaratuko garen guztiok. Orain arte bezala, mamia eta sormena bertatik bertara bizitzeko gonbidapena da gurea.

Pere Camps | Joxeanjel Irigaray | Iñaki Lazkano | Maialen Lujanbio | Jean Mixel Bedaxagar | Rafa Rueda | Miren Agur Meabe

Ezagutza sortu

EKTn jasotakoa aberastu egin ohi dugu Sorguneak ikertegiaren bidez garatzen ari garen ikerketetan. Era berean, ikerketetan ageri zaizkigun desafioak ekarri egin nahi ditugu EKTra, horiei buruz iritziak jaso eta ekarpenak egiten jarraitzeko.

Era berean, ikasle bakoitzak bere konpetentziak osatzeko plaza aurkitzen du berton. Horrela, ikaslea bere jardueraren erantzule eta sortzaile bilakatzen da.

Ezagutza transmititu

HUHEZIko SORguneak ikertegiko kideok izango gara aurreko edizioetan bildutako uztaren berri emango dugunak. Ikasgelan bertan zein nork bere bidetik sakontzen jarraitzeko bideak zabalduko ditugu. Ikasleen kezkei eta praktika-moduei argi egiteko helburua, azken finean.

Aditu, aritu eta ikasleen arteko hartu-emanaren berri ematen jarraituko dugu euskal hedabideetan. Izan ere, orain arte bezala: «Herri jakintza nahi dugu, eta jakintza herriarentzat nahi».

Elkar aberasten joango den gurpil birtuosoa osatzen jarraitu nahi dugu: ezagutza biltzea, sortzea eta transmititzea... izaten eta ekiten jarraitu ahal izateko.

Irati Elorrieta | Ander Lipus | Mixel Ducau | Caroline Philips | Ximun Fuchs

EUSKAL KULTURAREN ERRONKAK GAURKO GIZARTEAREN AUZIEN BAITAN

Ignazio Aiestaran, Eduardo Apodaka, Xabier Gantzarain, Mari Luz Esteban, Pello Jauregi, Josune Zabala, Izibene Oñederra.

KULTURA, TRADIZIOA ETA TRASGRESIOA

Ibai Iztueta, Iñaki Zabaleta Gorrotxategi, Mikel Ayerbe.

KULTUR EGITUREN FUNTSAK

Pello Eltzaburu.

KULTURA ETA LURRALDEAK

Xabi Strubell, Tony Strubell, Marc Biosca, Pere Camps, Joxeanjel Irigaray, Iñaki Lazkano, Etxauzia.

SORTZAILEAK: MAMIA ETA ATSEGINA

Maialen Lujanbio, Jean Mixel Bedaxagar, Rafa Rueda, Miren Agur Meabe, Iratxe Retolaza, Joseba Sarrionandia, Iban Urizar-Amorantea, Xabier Amuriza, Miren Amuriza, Meltxor Artetxe, Miren Artetxe, Irati Elorrieta, Ander Lipus, Mixel Ducau-Caroline Philips Ximun Fuchs eta Joxanton Artzeri omenaldia.

SORGUNEAK IKERTEGIA: FORMAZIO TEORIKOA ETA AURREKO EDIZIOETAKO SOZIALIZAZIOA

Nekane Goikoetxea, Iñaki Urruzola, Julen Arexolaleiba.

EKT-KO AURREKO EDIZIOTAKO HAINBAT IKASLEREN PROIEKTUAK

Tutore-mintegiak: ikasleak mintzo

- Adituen eta arituen irakaspenei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko.
- Irakaspenak nork bere interesguneetara egokitzeko.
- Aldiro-aldiro gogoetak eta esperientziak trukatzeko.

Ikasleen proiektua: oro mintzo

- Ikasleek, bakarka zein taldeka, proiektu bat garatuko dute ikastaldian zehar.
- Proiektu hori aurrera atera ahal izateko, ikasleak berak aukeratutako tutorearen laguntza izango du.

TOKIA, EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Aretxabaletan (Gipuzkoa)
Mondragon Unibertsitateko (MU)
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean (HUHEZI)

HASIERA ETA AMAIERA DATAK

2018/10/20 – 2019/06/16

ASTEBURU BAT HILEAN BEHIN

KLASE EGUNAK ETA ORDUTEGIAK

Larunbatetan 9:00 hasi
Igandeetan: 13:30 bukatu

Urria: 20-21	Martxoa: 9-10
Azaroa: 17-18	Apirila: 6-7
Abendua: 15-16	Maiatza: 11-12
Urtarrila: 12-13	Ekaina: 15-16
Otsaila: 9-10	

MATRIKULAZIOA: EPEA, PROZEDURA ETA PREZIOA

Matrikula zabalik izango da 2018ko **maiatzaren 3tik urriaren 18ra.**

MATRIKULA EGITEKO, BI MODU:

1. Irailetik aurrera etorri, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera, HUHEZIra:
   goizez 8:30-12:00; arratsaldez 14:30-17:30
2. *www.mondragon.edu/ekt* helbidean aurkituko duzun orria bete. Postan gutuna zertifikatu eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera igorri (Dorleta auzoa z/g, 20540 Eskoriatza)

Zenbatekoa:
Matrikula: 2.650 euro (hiru zatitan ordaintzekoa)
MUko ikasle ohiek %10 merkeago.
Otorduak eta lotarako tokia: 300 euro inguru

Telefonoa: 943 714 157

e-posta: *kulturgintza@mondragon.edu*

berria · euskadi irratia · naiz: · maizpide · EMUN · euskaltzaleen topagunea · Euskal Herriko Bertsozale Elkartea · zenbat gara elkartea · argia · goiena KOMUNIKAZIO TALDEA